

XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2708

85/2026 DEKRETUA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetan hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jardueri buruzkoa, ondoren bigarren mailako agregakin gisa erabiltzeko.

Hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak lehentasunezko hondakin-korrontetzat hartzen dira Europa mailan, haien sorrera-bolumen handiaren ondorioz eta hondakin horiek dituzten baliabideen balorizazio-potentziala kontuan hartuta.

Hondakinen gaineko Europako estrategiaren esparruan, «Baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen Europa bat» lortzeko bideari ekitea da xede nagusietako bat. Esparru horretan txertatzen da «ekonomia zirkularra» kontzeptua, eta erauzketan, fabrikazioan, erabileran eta deuseztatenean oinarrituta dagoen egungo ekonomia lineala gizarte-eredu zirkular berri batera aldatzea du helburu, materialen stockak eta fluxuak, energia eta hondakinak erabili eta optimizatzeko, baliabideen erabileran efizientzia lortzea xede.

Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinei buruzko egungo politika Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planean zehazten da. Plan horrek lehentasuna ematen dio hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea sustatzeari. Helburua da % 30 murriztea hondakinak sortzeagatiko tasa, hiri-hondakinen gaikako bilketa % 85era arte areagotzea, hondakin ez-arriskutsuen % 85 berrerabiltzea eta, hala, bigarren mailako material bilakatzea, eta % 15 baino gutxiagora murriztea hondakindegietako deuseztatena.

Hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen hondakinak hondakin ez-arriskutsuen hamar korronteen artean daude. Korronte horiek, balorizatu gero, 2030erako Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren helburura produktu berreskuratuen masa handiagoa ekarriko lukete.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko 2030erako Ekonomia Zirkularraren Estrategiarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planarekin bat etorriz, eta azken urteotako garapen teknologikoa kontuan hartuta, hainbat azterlan egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepa horien erabilera ebaluatzeko, eraikuntzaren eta zementuaren sektoreko erabileretan. Halaber, erabilera horietako ingurumen-arriskuaren ebaluazioak ere egin dira. Lortutako emaitzek, gaiaren gaineko nazioarteko esperientziarekin batera, agerian utzi dute egokia dela zepak erabiltzea aipatutako erabileretan. Gainera, egiaztatu da erabilera horrekin murriztu egiten direla ordezkatzan dituzten lehengaiak erauztearen eta prozesatzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuak, bai eta hondakindegian biltegitratuz deuseztatzearen ondoriozkoak ere.

Premisa horien arabera, dekretu honek zepa horiek balorizatzeko jardunak arautzen ditu, eta zepa horiek bigarren mailako agregakin bihurtu ondoren zer erabileretarako diren egokiak ezartzen du, aipatutako erabilera bakoitzerako betekizun teknikoek gain. Betekizun teknikoak ingurumenaren ikuspuntua bakarrik kontuan hartuz ezartzen direnez, balorizatutako zepen azken erabilerak bete egin behar ditu eraikuntzaren alorreko betekizun teknikoak eta proposatutako azken erabileraren arabera aplikatu beharreko beste guztiak.

Hondakinen balorizazio energetikorako Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako agregakinak, dekretu honetan aurreikusitako erabileretara bideratuz gero, hondakin-izaera galduko dute, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5. artikuluan adierazitakoari kalterik egin gabe, zepak balorizatzen dituen pertsonak dekretu honetan ezarritako adostasun-adierazpena igortzen duenean.

Aipatzeko modukoa da dekretu honek lagunduko duela Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan ezarritakoa betetzen; hau da, obra-kontratuak gauzatzeko administrazio-klausulen eta preskripzio tekniko partikularren agirietan azaldu beharreko bigarren mailako materiaren erabileraren gutxienezko ehunekoari buruzko helburura iristen.

Azken xedapenetako lehenengoak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen azken xedapenetako zortzigarrenean xedatutakoa aplikatuz (xedapen horrek ahalmena ematen dio Gobernu Kontseiluari lege horren eranskinak dekretu bidez aldatu ahal izateko), haren II. eranskina aldatzen da.

Gainerako azken xedapenek gai hauek arautzen dituzte, besteak beste: hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 6. artikulua aldatzea, dauden instalazioak egokitzea, zehapen-araubidea, horiek garatzeko gaikuntza eta araua indarrean sartzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua ezartzen du administrazio publikoek honako printzipio hauen arabera jokatu behar dutela legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Dekretu honek printzipio horiek betetzen ditu.

Gainera, xedapen hori Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen aurreikusitako prozeduraren mende jarri da, eta Merkatu Batasunerako Kontseiluaren Idazkaritzak prestatutako plataforman argitaratu da, gainerako administrazio publikoek berrikusteko. Dekretuak ez ditu beharrezkoak ez diren administrazio-kargak aurreikusten, lortu nahi diren helburuak lortzeko karga egokiak baizik.

Arau honen testua bi testutan xedatutako prozedurari jarraikiz sortu da: batetik, informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arau eta erregelamendu tekniko berri emateko prozedura abian jartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko irailaren 9ko 2015/1535/EE Zuzentarauari jarraikiz, eta, bestetik, informazioaren gizartearen zerbitzuei buruzko arau eta erregelamendu tekniko arloko informazioa bidali beharra arautzen duen uztailaren 31ko 1337/1999 Errege Dekretuari jarraikiz. Halaber, araudian ezarritakoaren arabera, hiru hilabeteko etendura bete da.

Ondoren, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuak hala proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko ekainaren 2ko bilkuran hala eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

Dekretu honen xedea da irizpideak ezartzea zehazteko hondakinen balorizazio energetikorako Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepak noiz uzten dioten hondakin izateari,

gero bigarren mailako agregakin gisa erabil daitezzen Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, eta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritako definizioei kalterik egin gabe, definizio hauek ematen dira:

a) Aglutinatutako aplikazioak: edozein konglomeratzailerekin nahastutako material granularrak erabiltzea. Nahaste horrek kohesioa ematen dio aplikazioari agregakinak matrize inorganiko batean kapsularatuz. Horrela, giroarekiko esposizioa eta osagaien hedapena hutsa edo hutsala dela esango dugu.

b) Aglutinatu gabeko aplikazioak: material granularrak erabiltzea askotariko hiri-lanetan, hainbat geruzatan trinkotuz, konglomeratzailerik gehitu gabe.

c) Bigarren mailako agregakina: Hondakinen balorizazio energetikorako Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepen balorizotik sortutako materiala, dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituena.

d) Hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak: Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetako hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako labearen hondoan lortutako material ez-erregaiaren frakzio granularra.

e) Ur-masa: lurrazaleko edo lurpeko uren, ur kontinentalen, trantsizioko uren edo itsasertzeko uren zati edo bolumen oro, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauan jasotako definizioen arabera. Zuzentzarau horrek uren politikaren eremuan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen du.

f) Bigarren mailako agregakinaren erabiltzailea: bigarren mailako agregakina dekretu honetan baimendutako erabileretarako erabiltzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

g) Zepen balorizatzailea: Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepak dekretu honetan ezarritako baldintzetan hondakinen balorizazio energetikorako tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridiko baimendua, bigarren mailako agregakina lortzen duena eta lehen aldiz erabiltzaile bati hondakin izateari utzi dion material gisa transferitzen diona, dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepen balorizazioa, hondakinen balorizazio energetikorako: zepetan dauden baliabideak aprobetxatzeko, eta, zehazki, zepetatik bigarren mailako agregakinak lortzeko aukera ematen duen prozedura oro, giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kaltetu dezaketzen metodo edo prozedurarik gabe.

3. artikulua.– Zepak balorizatzeko jarduerak egiten dituzten instalazioen baimenak.

1.– Hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jarduerak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoaren aurretiazko baimena beharko da.

2.– Baimena jardun baterako edo gehiagorako eman ahal izango da, jarduerari aplikatu beharreko beste edozein arauditan xedatzen diren baimen edo lizentziei kalterik egin gabe.

3.– Baimena emateko baldintzak, instalazioaren betekizunak eta hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jardunaren oinarritzko ekintzak I. eranskineko 1. eta 2.

apartatuetan deskribatutakoak izango dira, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean edo, hala badagokio, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoez gain.

4.– Baimen-eskaeren edukiak 3. artikuluan aurreikusitakoa betetzen dela deskribatu eta egiaztatu beharko du.

4. artikulua.– Hondakinaren izaeraren amaiera ezartzeko irizpideak.

Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5.3 artikuluan adierazitakoa eragotzi (alde batera utzi) gabe, hondakinen balorizazio energetikorako Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepak balorizatzetik datozen bigarren mailako agregakinek, dekretu honetan aurreikusitako erabileretara bideratzen direnek, hondakin-izaera edukitzeari utzi ahal izango diote 4. artikuluan arautzen den baimenak baldintza hauek ezartzen dituenen:

a) Balorizatu beharreko zepak I. eranskineko 1. apartatuko irizpideak betetzen dituztenak baino ez izatea.

b) Zepak I. eranskineko 2. apartatuan ezarritako irizpideen arabera tratatuak izatea.

c) Balorizazio-prozesuaren ondoren lortutako bigarren mailako agregakinak 6. artikuluan eta II. eranskinean ezarritako erabilera eta baldintzatzaileetarako baino ez izatea.

d) Bigarren mailako agregakinek betetzea Europar Batasuneko zuzenbideko xedapenek ezarritakoa; batez ere honako hauek ezarritakoa: 2024ko apirilaren 11ko, hondakinak lekualdatzeari buruzko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1157 (EB) Erregelamenduaren 29. eta 61.2 eta 61.3 artikulua 1257/2013 (EB) Erregelamendua eta 2020/1056 (EB) Erregelamendua aldatzen dituena.

e) Zepen balorizatzaileak 8. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat datorren kudeaketa-sistema edukitzea.

f) Zepen balorizatzaileak bidalketa bakoitzerako adostasun-adierazpen bat egitea, 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

5. artikulua.– Zepen balorizatzaileen betebeharrak, hondakin-izaera edukitzeari uzteko baimena emateko.

Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako betebeharrei kalterik egin gabe, zepak balorizatzen dituzten pertsonak honako hauek egin beharko dituzte:

a) 3. artikuluan ezarritako baldintza bakoitza betetzen dela egiaztatzea.

b) Artxibo kronologiko eguneratua edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoren eskura, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Artxibo horretan honako informazio hau jasoko da:

– Balorizatu beharreko zepen kopurua eta jatorria.

- Zepa horien lote-zenbakia.
- Lote horri emandako tratamendua eta intzidentzia posibleak.
- Bigarren mailako agregakinen lote-zenbakia.
- II. eranskinean aurreikusitako laginketen eta analisisien emaitzak.
- Lotearen irteera-data.
- Produktuaren erabiltzailearen identifikazioa, erabilera espezifikoa, destinora bideratzen den kopurua eta bidalketa bakoitzari lotutako adostasun-adierazpenen erreferentzia-zenbakia.
- Tratamenduan sortutako hondakin-kopurua, hondakin-izaera galtzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituen, eta destinoa.

c) Informazioa ematea azken erabiltzaileari Dekretu honetan jasotzen diren bigarren mailako agregakinen ingurumen-ezaugarriei buruz, horien arabera izan ditzaketen erabilerei buruz eta erabilera horietan ezartzen diren mugei buruz, adostasun-adierazpenaren bidez.

6. artikulua.– Bigarren mailako agregakinen erabilerak.

1.– Hondakinen balorizazio energetikorako Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik datozen zepen balorizaziotik datozen bigarren mailako agregakinak II. eranskinean jasotako erabileretara bideratu ahal izango dira, erabilera bakoitzerako eskatzen diren baldintzen arabera. Erabilera horiek honela sailkatzen dira:

- Eraikuntzako produktuak egiteko lehengaien erabilera.
- Agregakinen erabilera aglutinatutako aplikazioetan.
- Agregakinen erabilera aglutinatu gabeko aplikazioetan.

2.– Bigarren mailako agregakinak aglutinatu gabeko aplikazioetan erabiltzeko, baldintza hauek bete beharko dira, oro har:

a) Ez dira erabiliko Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean ezarritakoaren arabera natura-ondareko gune babestutzat jotzen diren eremuetan.

b) Ez dira material granular gisa erabiliko aplikazio drainatzaileetan edo urak har ditzakeen eremuetan, 10 urteko errepikatze-denborei dagozkienak.

c) Ez dira erabiliko estaldurarik gabeko aplikazioetan, hala nola basoko pistetan, asfaltatu edo hormigoiz estali gabeko landa-bideetan, edo trenbideetako balastoetan.

d) Ez dira erabiliko ur-masetatik 30 metro baino gutxiagora eta ur-hornidurako putzuen babes-perimetroetan.

e) Ez dira erabiliko azaleratze karstikoko eremuetan.

f) Ez dira erabiliko aurrekargako obretan.

3.– Bigarren mailako agregakinek artikuluko honen lehen apartatuan aurreikusitako erabilerak bakarrik izan ditzakete, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren berariazko baimena duten kasuetan salbu. Baimen hori salbuespenezko egoeretan bakarrik eman ahal izango da, erakunde interesdunak proposatutako erabileraren egokitasuna frogatu eta eskari egokia egin

ondoren. Egokitasun hori aurreikusitako erabilerarako arriskuen analisi batean oinarrituko da, dekretu honetako V. eranskinean ezarritakoaren arabera.

4.– Bigarren mailako agregakinen erabilera errazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak jarraibide edo gida teknikoak argitaratu ahal izango ditu, besteak beste, dekretu honen edo bere erregelamendu-garapenen arabera erabiltzeko onartutzat jotzen diren egoerak xehetasunez deskribatzeko.

7. artikulua.– Adostasun-adierazpena.

1.– Zepen balorizatzaileak adostasun-adierazpen bat egingo du bigarren mailako agregakinen bidalketa bakoitzerako, dekretu honetako VI. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

2.– Adostasun-adierazpena bigarren mailako agregakinaren bidalketa jasotzen duen hurrengoari transmitituko zaio.

3.– Zepen balorizatzaileak eta bigarren mailako agregakinak jasotzen dituzten ondorengoek adostasun-adierazpenaren kopia bat gordeko dute gutxienez bost urtez, ematen den datatik aurrera, eta agintari eskudunen esku jarriko dute eskatzen zaienean.

4.– Adostasun-adierazpena edozein modutan eman daiteke; hau da, paperean edo formatu elektronikoa, betiere haren benetakotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna berma baldin badaitezke adierazpena ematen den egunetik hasi eta gorde beharreko aldi guztian.

5.– Bidalketa bakoitzaren garraioan, adostasun-adierazpenak ere egon beharko du. Bidalketa hainbat garraio-unitatetan egiten bada, bakoitzak adostasun-adierazpenaren kopia bat eduki beharko du.

8. artikulua.– Kudeaketa-sistema.

1.– Zepen balorizatzaileak kudeaketa-sistema ziurtatu bat ezarriko du, 3. artikuluan adierazitako irizpideak betetzen direla egiaztatzeko.

2.– Kudeaketa-sistemak prozedura dokumentatu batzuk izango ditu, honako alderdi hauei buruzkoak:

a) Tratatu diren hondakin erabilien onarpenaren kontrola, I. eranskineko 1. apartatuan ezartzen den bezala.

b) I. eranskineko 2. apartatuan deskribatutako tratamendu-prozesuaren eta -betekizunen gainbegiratzea.

c) II. eranskinean jasotako baldintzatzaileen betearazpenaren gaineko kontrola, bigarren mailako agregakinen mota bakoitzaren destinoaren arabera.

d) Erabiltzaileek baldintzatzaileen betearazpenari buruz egindako oharrak, tratatutako zepa-mota eta ekoizitako bigarren mailako agregakin bakoitzaren destinoaren arabera.

e) a)tik c)ra bitarteko letren arabera egindako kontrolen emaitzen erregistroa.

f) Kudeaketa-sistemaren berrikuspena eta hobekuntza.

g) Langileen prestakuntza.

h) Prozesuaren tresneria- eta kontrol-betekizun espezifikoak.

3.– Kudeaketa-sistemak barne hartu beharko ditu tratamenduaren ondoriozko bigarren mailako agregakinetarako laginketa-diseinuaren metodologia eta laginak hartzeko prozesua, UNE-EN 932-1:1997 eta UNE-EN 932-2:1999 arauen arabera, indarrean den bertsio eguneratuenean, eta dekretu honetako IV. eranskinean ezarritako jarraibideen arabera.

4.– I. eranskineko 2. apartatuan aipatutako tratamenduren bat zepen kudeatzailea ez den beste hondakin-kudeatzaile baten kontura egiten denean, lehenengoak ziurtatu beharko du hondakin-kudeatzaileak ezartzen duela artikuluko baldintzak betetzea bermatzen duen kudeaketa-sistema bat.

5.– Zepen balorizatzaileak agintari eskudunei kudeaketa-sistamarako eta dagozkien erregistroetarako sarbidea erraztuko die, hala eskatzen zaienean.

9. artikulua.– Zehapen-araubidea.

Dekretu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatzea ekarriko du.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.– Dekretu honen xede diren zepak balorizatzeko instalazioen baimenak egokitzeko epea.

Gehenez ere 18 hilabeteko epean, hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzen dituzten instalazioek dekretu honen edukira egokitu beharko dituzte instalazioak, eta dagokion baimena egokitzeko eskatu beharko diote ingurumen-organoari.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II. eranskina aldatzea.

Aldatu egiten da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.E eranskineko 9.b paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«9.b.– Hondakinak ezabatzeko edo balorizatzeko instalazio finkoak, jarduera kanpoan edo industrialdeetatik kanpo egiten bada».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 6.h) artikulua aldatzea.

Aldatu egiten da Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 6.h) artikulua, eta honela geratzen da:

«h) Balorizazioaren xede izan daitezkeen hondakinak, hala nola beira, papera-kartoia, ontziak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, zura, ekipo elektrikoak eta elektronikoak, baloriza daitezkeen arku elektrikoko labeetako altzairugintzatik eratorritako zepa beltzak, hondakin ez arriskutsuen balorizazio energetikotik eratorritako zepak eta abar. Zerrenda hori erregelamendu bidez handituko da, hondakin berriak balorizatzeko kudeatzaile baimenduak sortu ahala.»

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Dekretua garatzeko eta aldatzeko arau-gaikuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumenaren arloko eskumena duen sailaren titularrari ahalmena ematen zaio dekretu honen eranskinak garatzeko eta aldatzeko, aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin bat etorritik.

2026ko ekainaren 19a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, azken xedapenetako bigarrena izan ezik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 18 hilabetera jarriko baita indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 2an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.

I. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

1.– Balorizatu beharreko zepen eta Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko instalazioen betekizunak.

1. taula. Balorizatu beharreko hondakinak.

Hondakin onargarriak	Kontrol-betekizunak
<p>Tratamenduaren sarreran onartutako hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen arriskutsuen balorizazio energetikoko instalazioetan sortutakoak izango dira soilik, betiere lotutako HEZ honako hau bada: 19 01 12, Labe barruko errautsak eta 19 01 11* kodean zehaztutakoen bestelako zepak.</p> <p>Balorizazio energetikoko instalazioetan hondakinak tratatzean sortu ez diren zepak ez dira onartuko.</p>	<p>Tratamenduaren sarreran hondakinak onartzeko, langile kualifikatuak egongo dira kontrol-lana egiten. Hartara, ikusizko ikuskaritza egin eta erantsitako dokumentazioa aztertuta, irizpide horiek betetzen ez dituzten hondakinak identifikatu beharko dituzte.</p> <p>Laborategi-probak eskatuko dira hondakinen arriskugarritasun-ezaugarriak zehazteko legeria aplikagarriaren arabera, hondakinek arriskurik sortzen ez dutela bermatzearren.</p>

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen balorizazioa.

2.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen balorizazio-instalazioen betekizun teknikoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen balorizazio-instalazioek honako betekizun tekniko hauek bete beharko dituzte:

a) Zepen biltegia, balorizazio-instalazioak, bigarren mailako agregakin metatuak eta ibilgailuen eta makinaren instalazio barruko zirkulazio-eremuak geruza iragazgaitz baten gainean ezarriko dira, ibilgailuen eta makinaren joan-etorriak jasango dituen. Apartatu honen ondorioetarako, geruza iragazgaitza izango da $k \leq 1 \times 10^{-7}$ m/s-ko iragazkortasun hidrauliko saturatua eta metro 1eko lodiera duen barrera geologiko bat edo babes baliokidea ematen duen beste material bateko geruza bat (adibidez, hormigoi dardaratuzko zolata bat).

b) Tratamendua nahiz biltegia estalpean egingo dira, pabiloi itxi batean, partikulak kanpora isurtzea gutxitzeko. Nolanahi ere, sortutako agregakin sekundarioaren heltze-prozesuak (karbonatazioa, hidratazioa eta oxidazioa) aire zabalean egin ahal izango dira.

c) Trataturako eta tratatu gabeko materialak nahastea eta trataturako material-frakzio desberdinak nahastea galaraziko duten elementuak izan beharko dira.

d) Hautsaren kontrako neurriak izatea: karinatuak, ur-aspertsoreak, mahuka malguak, bideen ureztapena ibilgailuak eta makineria igarotzen diren lekuetan.

2.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen balorizazio-prozesuaren oinarritzko jardunak:

2.2.1.– Zepen balorizazio-prozesuak, zepa horiek bigarren mailako agregakin bihurtzekoak, hainbat etapa ditu, azken erabileraren arabera, lortutako material granularraren egonkortasun bolumetrikoa, kalitatea eta tamaina bermatu eta, horrela, zenbait aplikaziotarako merkaturatu ahal izateko.

2.2.2.– Balorizatzaileak honako irizpide tekniko hauek betetzen direla bermatuko du:

a) Zepen biltegia: umotze- eta zahartze-aldia 30 eta 730 egun bitartekoa izan daiteke zepa-mota-ren, hozte-prozesuaren eta hautatutako zahartze-prozeduraren arabera. Kontuan izan behar da Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan jasotzen denaren arabera, hondakinaren biltegitratzeak, azken erabilera eman aurretik, ezingo duela gainditu hondakin ez-arriskutsuak (balorizatzeakoak) biltegitratzeko gehieneko epea.

b) Birrintzea: zepa xehatzeko erabiltzen den birrintze-teknologiak tamaina egokiak, haur-tura-aurpegiak eta jatorrizko zepan xurgatutako elementu metalikoen deuseztatze onena bermatu beharko ditu. Birrintzeko produktuak erabilera bakoitzerako beharrezkoa den granulometria errespetatu beharko du.

c) Desferretizazioa eta desmetalizazioa: gutxienez desferretizazio-sistema bat erabili beharko da, ahalik eta burdin metaliko gehien ateratzeko. Era berean, beste frakzio metaliko batzuetako ahalik eta eduki gehien deuseztatzeoko tratamenduak egin beharko dira.

d) Baheketa: Zinten edo beste bitarteko batzuen bitartez bahera iristen den material granularra xede-erabileretan zehaztutako tamainen arabera sailkatuko da.

e) Material granularren metaketa, frakzioen arabera bereizita: material granularra frakzio granulometriko bereizien arabera sailkatuko da, dekretu honetan arautzen diren erabilerei erreparatuz. Frakzio granulometriko horiek gainazal iragazgaitz baten gainean metatuko dira.

2026ko ekainaren 19a, ostirala

II. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen tratamenduan sortutako bigarren mailako agregakinetarako baimendutako erabilerak, destinoak eta baldintzaileak

2. taula. Baimendutako erabilerak.

Baimendutako erabilerak	Destinoak	Baldintza teknikoak ¹	Ingurumen-baldintzak	Erabilera-baldintzak
Eraikuntzako produktuak egiteko lehengai gisa.	Zementua, produktu zeramikoak, xurgatzaileak eta bestelakoak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> – Azken materialaren araudian preskribatutako betekizun teknikoak. – Zementu-instalazioaren baldintzen betearazpena (MgO, fluoruro eta abarren edukia), betiere azken materialaren, fabrikazio-prozesuaren edo azken materiala egiten duen instalazioaren betekizun teknikoak betetzen badira. 	Ez da halakorik eskatzen.	
Agregakin gisa, aglutinatutako aplikazioetan.	Hormigoia egitea. Zementu bidez egonkortutako zoru edo legarra egitea.	<ul style="list-style-type: none"> – Azken materialari aplikatu beharreko araudi teknikoan preskribatutako betekizun teknikoak. 	Ez da halakorik eskatzen.	
Agregakin gisa aglutinatu Gabeko aplikazioetan, guztiz iragazgaitza den estalkiaren azpian, zoruarekin harreman zuzena eduki gabe.	Barne-betelanak itxitako hormigo-kutxetan.	<ul style="list-style-type: none"> – Azken materialari aplikatu beharreko araudi teknikoan preskribatutako betekizun teknikoak. 	Ez da halakorik eskatzen.	Bigarren mailako agregakina, ingurumen-baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan, 70/30 proportzioan agregakin naturalekin nahastu behar da. ²

¹ Taula honetan jasotako araudi teknikoez gain, erabilera bakoitzak gaur aplikagarria den edo dekretu hau onartu ondoren erabilera horretarako onartzen den beste edozein araudi tekniko bete behar da.

² Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan xedatutako azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo erosketari publiko berdean berrerabiltzeko prestatzeko prozesuetatik datozenak erabiltzeko eskakizunak betetzeko bakarrik zenbatuko da azken nahasketan ateratzen den agregakin sekundarioaren kopurua.

2026ko ekainaren 19a, ostirala

Baimendutako erabilerak	Destinoak	Baldintza teknikoak ¹	Ingurumen-baldintzak	Erabilera-baldintzak	
Aglutinatu Gabeko aplikazioak, guztiz iragazgaitza den estalkiarekin azpian, zoruarekin harreman zuzenean.	Bide eta errepeideen oinarrietarako edo oinarri-azpietarako zagorrak.	<ul style="list-style-type: none"> – Euskal Autonomia Erkidegoko errepeide-sareko zoruak dimentsionatzeko arauan ezarritakoa. Arau hori onartu zuen, hain zuzen ere, Lurralde Plangintza, Exebizitza eta Garraioko sailburuaren 2022ko uztailaren 12ko Aginduak, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide-zoruak dimentsionatzeko arauaren testu berrikusi eta osatua. 	<ul style="list-style-type: none"> – 6. artikulua, 2. apartatua. – Urtean 6 mm-tik beherako infiltrazioa bermatzen duen geruza iragazgaitza. – III. eranskineko 1. taulako lixibiazioko muga-balioak betetzea. – Eduki osoaren muga-balioak betetzea (VIE-B erabilera industrialaren kategoria, beruna izan ezik, haren gehieneko muga 800 mg/k izango baita.), lursail naturalaren gainean badaude zuzenean. 	Bigarren mailako agregakina, ingurumen-baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan, 70/30 proportzioan agregakin naturalekin nahastu behariko da. ³	
	Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideen eta kirol-pisten oinarrietarako/oinarri-azpietarako zagorra.	<ul style="list-style-type: none"> – Eusko Jaurlaritzako bizikleta-bideetako zoruak diseinatzeko gomendioak. – Beste zuzentarau batzuk, lurralde historikoaren arabera. 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskal Autonomia Erkidegoko errepeide-sareko zoruak dimentsionatzeko arauan ezarritakoa. Arau hori onartu zuen, hain zuzen ere, Lurralde Plangintza, Exebizitza eta Garraioko sailburuaren 2022ko uztailaren 12ko Aginduak, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide-zoruak dimentsionatzeko arauaren testu berrikusi eta osatua. 		
	Hobetutako zelaiguneetarako zagorra. Lubetak. Ezpondak.	Hodiak eta zangak estaltzeko betelanak.	<ul style="list-style-type: none"> – UNE/EN 805:2000 Araua, Ur-hormidura, eraikinen kanpoko sareetarako zehaztapenak eta horien osagaiak. – UNE-EN 1610:2016 Araua, Estolderia-sareen eta hustubideen eraikuntza eta entseguak. 		
	Espaloi azpiko mailaketetarako betelanak.	<ul style="list-style-type: none"> – Araudi tekniko aplikagarria. 			

³ Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan xedatutako azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo erosketari publiko berdean berrerabiltzeko prestatzeko prozesuetatik datozenak erabiltzeko eskakizunak betetzeko bakarrik zenbatuko da azken nahasketan ateratzen den agregakin sekundarioaren kopurua.

2026ko ekainaren 19a, ostirala

Baimendutako erabilerak	Destinoak	Baldintza teknikoak ¹	Ingurumen-baldintzak	Erabilera-baldintzak
Agregakin gisa zabortegetan.	<p>Zabortegeiak estaltzea.</p> <p>Barrualdean behin-behineko pistak eraikitzean.</p> <p>Lehen/bigarren mailako drainatze-geruzetan, gasak eta lixibatuak ebakutzeko.</p> <p>Zabortegeiak zigilatu eta/edo iragazteko konponbideetan.</p> <p>Orokorrean, edozein aplikaziotan, betiere isurketa-basoaren iragazgaizte-eremuaren barruan egiten bada.</p>	<p>– Material granularren betekizun teknikoak kontrolatzea, betelaneko materialaren zehaztapenak betetzen direla bermatzeko, araudian, estandarretan edo proiektuko preskripzio teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera.</p>	<p>Kasuan kasuko zabortegeian onartzeko ingurumen-irizpideak.</p>	

III. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

INGURUMENA EBALUATU ETA KONTROLATZEKO IRIZPIDEAK, AGLUTINATU GABEKO APLIKAZIOETARAKO BIGARREN MAILAKO AGREGAKINEN ERABILEREN ARABERA

Aglutinatu gabeko aplikazioetan erabilitako Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinak balorizatzetik eratorritako zepen balorizazioko agregakinek ingurumena ebaluatu eta kontrolatzeko irizpide hauek bete beharko dituzte:

AGLUTINATU GABEKO APLIKAZIOETARAKO BIGARREN MAILAKO AGREGAKINAREN LIXIBAZIOAREN GAINEKO BALDINTZAK

3. taula. Aglutinatu gabeko aplikazioetarako bigarren mailako agregakinaren lixibazioko muga-balioak (mg/kg).

Lixibazioa UNE-EN 12457-4 Arauan		
Parametroa		Muga-balioa
Artsenikoa (As)	(mg/kg)	0,6
Barioa (Ba)	(mg/kg)	25
Kadmioa (Cd)	(mg/kg)	0,05
Kromoa (Cr), guztira	(mg/kg)	2
Kromoa (Cr) VI	(mg/kg)	0,4
Kobrea (Cu)	(mg/kg)	20
Merkurioa (Hg)	(mg/kg)	0,01
Molibdenoa (Mo)	(mg/kg)	2,8
Nikela (Ni)	(mg/kg)	0,5
Beruna (Pb)	(mg/kg)	1,2
Antimonioa (Sb)	(mg/kg)	0,30
Selenioa (Se)	(mg/kg)	0,4
Zinka (Zn)	(mg/kg)	5
Kloruroak (Cl)	(mg/kg)	5.000
Fluoruroak (F-2)	(mg/kg)	30
Sulfatoak (SO42-)	(mg/kg)	5.000

Tratatutako zepen lixibazioa iraulketa-saiakuntza baten bidez kontrolatuko da, UNE-EN-12457-4 Arauaren arabera. Saiakuntza hori akreditatutako laborategi batek egin beharko du, parametro guztietan, eta aurreko taulan ezarritako muga-balioak gainditzen ez direla egiaztatuko da. Balio horiek ezin izango dira doitu beste material batzuk gehituz edo nahastuz.

Parametroen betetze-mailaren jarraipena egiteko, sortutako errausketa-zepetatik eratorritako bigarren mailako agregakinaren 2.000 m³-ko aldizkako analisiak egingo dira.

IV. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

BIGARREN MAILAKO AGREGAKINEN LAGINKETA-PLANARI ETA LAGINAK HARTZEKO
PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Tratatutako zeparen karakterizazioa laginketa-plan baten arabera egin beharko da, bai azken aplikazioari jarraikiz bete beharko dituen propietate teknikoei dagokienez, bai ingurumen-babesari dagokienez. Plan horrek laginketako lotearen lagin adierazgarri bat hartzeko aukera emango du.

Zepa gordinaren lote beretik (hilekoa, hiru hilekoa edo sei hilekoa) zenbait material fabrikatzen badira (agregakinen ebaketen sorta osoa: harea, legarra eta abar), fabrikatzaileak adostasun-kontrola egingo du merkaturatutako frakzio finenari dagokion granulometria duen ebaketaren gainean.

Tratatutako zepa-sorta baterako laginketa-estrategiaren helburua lagin konposatu adierazgarria (M masakoa) osatzea izango da, estatistikoki lagindutako oinarrizko laginetan (M masa) oinarritua.

Lagin konposatu globala (M masa), UNE EN 932-1:1997 arauaren arabera probatutako materialaren ale-tamainak zehaztuko duena, gutxienez 24 lagin indibidualek osatuko dute (M masa). M masako lagin konposatua lortu ondoren, laginaren tamaina murriztuko da laborategira bidaltzeko, UNE EN 932-2:1999 arauaren arabera.

Lagin indibidualaren M masa honela kalkulatu da: lagin konposatuaren M masa zati guztira jasotako banakako laginen kopurua (gutxienez 24 lagin).

V. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

ARRISKUEN ANALISI KUANTITATIBOA EGITEKO ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

– Arriskuen analisi kuantitatiboa. 2020.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/investigacion_suelo/es_def/adjuntos/05_acr.pdf

– Giza osasunerako eta ekosistemetarako arriskuen analisisa. Gida metodologikoa. Ihobe. Eusko Jaurlaritza. 1998

https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/es/contenidos/documentacion/investigacion_cont_suelo/es_doc/adjuntos/04.pdf

– JRC. (2014). Study on methodological aspects regarding limit values for pollutants in aggregates in the context of the possible development of end-of-waste criteria under the EU Waste Framework Directive.

VI. ERANSKINA, EKAINAREN 2KO 85/2026 DEKRETUARENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HONDAKINEN BALORIZAZIO ENERGETIKOTIK ERATORRITAKO ZEPEN TRATAMENDUTIK SORTUTAKO BIGARREN MAILAKO AGREGAKINAK HONDAKIN IZATEARI NOIZ UZTEN DIOTEN ZEHAZTEKO IRIZPIDEEEKIKO ADOSTASUN-ADIERAZPENA

1	Materialaren ekoizlea/inportatzailea Izena: Helbidea: Harremanetarako pertsona: Telefono-zenbakia: Faxa: Helbide elektronikoa: Hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko zenbakia:
2	Tratatutako hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak/ hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepen tratamendutik sortutako bigarren mailako agregakina Erabilera baimendua, ekainaren 2ko 85/2026 Dekretuaren II. eranskinaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetan hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jardueri buruzkoa, ondoren bigarren mailako agregakin gisa erabiltzeko.
3	Lote-zenbakia eta tona-kopurua:
4	Bidalketa honek 3. artikuluan aipatutako irizpideak betetzen ditu, zeinaren bidez ezartzen baitira hondakin honi hondakin izaeraren amaiera emateko irizpideak.
5	Bidalketa Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetan hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko, ondoren bigarren mailako agregakin gisa erabiltzeko jardueri buruzko ekainaren 2ko 85/2026 Dekretuaren 6. artikuluan eta II. eranskinean jasotako xede eta baldintzetara soilik egokitzen da.
6	Zepen tratamendutik eratorritako bigarren mailako agregakinen ekoizleak kudeaketa-sistema bat du ezarrita, 8. artikuluaen arabera. Kudeaketa-sistema
7	Aurreko informazioa osoa eta zuzena dela ziurtatzen dut, nire jakituria eta ulermen leialaren arabera. Izena: Data: Sinadura: